

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2020/2021 ikasturtea**

**LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEK HAUREN  
TRANSEXUALITATEAREN INGURUAN DUTEN FORMAKUNTZAREN  
ANALISIA**

**Egilea: Oier De Juan Martínez**

**Zuzendaria: Nekane Beloki Arizti**

**Leioan, 2021eko ekainaren 8an**

## **AURKIBIDEA**

<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>MARKO TEORIKOA</b>	<b>5</b>
1. TRANSEXUALITATEA ULERTU AHAL IZATEKO KONTZEPTUAK	5
2. SEXU KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA	5
3. GENERO KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA	5
4. SEXU ETA GENERO IDENTITATEA	5
5. TRANSEXUALITATEAREN ERREALITATEA	7
6. TRANSEXUALITATEA HEZKUNTZA-EREMUAN	9
6.1. MARKO LEGALA	9
6.2. HEZKUNTZA ARLOAN TRANS ADINGABEEI LAGUNTZEKO GOMENDIOAK	10
6.2.1. TRANSEXUALITATE EGOERAREN IDENTIFIKAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	10
6.2.2. IKASTETXEAN HARTU BEHARREKO OINARRIZKO ANTOLAMENDU-NEURRIAK	11
6.2.3. PRESTAKUNTZA PLAN INTEGRALA	11
6.2.4. BEREIZKERIA ETA ESKOLA-JAZARPEN KASUETARAKO NEURRIAK	12
<b>METODOLOGIA</b>	<b>14</b>
LAGINA	14
PARTE-HARTZAILEAK	15
PROZEDURA	15
<b>EMAITZAK</b>	<b>18</b>
IRAKASLEEN JAKINTZA OROKORRA	18
IRAKASLEEN FORMAKUNTZA ADINAREN ARABERA	21
<b>ONDORIOAK</b>	<b>24</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>26</b>

# LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEK HAUREN TRANSEXUALITATEAREN INGURUAN DUTEN FORMAKUNTZAREN ANALISIA

Oier De Juan Martínez  
UPV/EHU

Con esta investigación se pretendía analizar cuál es la formación que el profesorado actual tiene en torno a la transexualidad infantil para saber si el sistema educativo está capacitado para dar respuesta a las necesidades de los menores trans\*. Para ello, se realizó una encuesta a profesores de diferentes edades y centros del País Vasco y como resultado se obtuvieron diferentes respuestas entre las que destacaba el desconocimiento hacia ciertos aspectos del tema. Los resultados concluyeron que los profesionales de la educación todavía tienen grandes dudas sobre cómo actuar ante un caso de transexualidad en el aula dado que la mayoría no ha recibido formación al respecto.

*Transexualidad infantil, profesorado, educación, inclusión, formación*

Ikerketa honen bidez, egungo irakasleek haurren transexualitateari buruz duten prestakuntza aztertu nahi zen, hezkuntza-sistema trans\* adingabeen beharrei erantzuteko gai den jakiteko. Horretarako, Euskal Herriko adin eta ikastetxe desberdinetako irakasleei inkesta bat egin zitzaion eta, emaitza gisa, erantzun desberdinak lortu ziren, gaiaren alderdi batzuetan ezjakintasuna nabarmentzen zutenak. Emaitzen arabera, hezkuntzako profesionalek ikasgelan transexualitate-kasu baten aurrean nola jokatzearen inguruan zalantza handiak dituztela ondorioztatu zen, gehiengoak ez baitu horren inguruko prestakuntzarik jaso.

*Haurren transexualitatea, irakasleria, hezkuntza, inklusioa, formakuntza*

This research aimed to analyze what is the training that current teachers have concerning children's transsexuality to know if the education system is capable of responding to the needs of trans\* children. In order to do this, a survey was conducted to teachers of different ages and centers of the Basque Country and, as a result, different responses were obtained, among which the lack of knowledge about certain aspects of the subject was highlighted. The results concluded that education professionals still have great doubts about how to deal with a case of transsexuality in the classroom since most of them have not received training about it.

*Children's transsexuality, faculty, education, inclusion, training*

## **SARRERA**

Transexualitatea gaur egungo gizarteak begi-miran daukan gaietako bat da. Izan ere, transexualitatea betidanik existitu arren, azken urteetan zehar Trans\* kolektiboaren ikusgarritasuna handitu izan da, zalantzan jarriz genitalen sexazioa. Horrek ez du bakarrik lagundu transexualitate kasu gehiago argitara ateratzen, baizik eta hurrek oso txikitatik jakin dezaten zer gertatzen zaien. Izan ere, kolektiboko pertsonak ikusaraztean, txikienek beren burua identifikatzeko erreferenteak dituzte eta beraz, bai umeak bai ume horien inguruneak gai izango dira gertatzen denari izena jartzen eta beharrezko laguntza eta babesa bilatzen, beti ere umeen eskubideak eta zorientasuna helburu izanda (Naizen, 2021).

Ikerketa hau garatzea garrantzitsua da ikusteko gizarte hau prest dagoen haur trans\*-ei behar duten arreta eskaintzeko, batez ere, hezkuntza arlotik behatuta. Izan ere, gizartearen eta, hortaz, gizartearen eremu guztien (osasuna, hezkuntza, judiziala...) betebeharra da pertsona trans-en segurtasuna eta eskubideak bermatzea (Landaarroitajauregui, 2000). Azterketa honekin ikusi nahi da lehenik eta behin, hezkuntza arloan gaiaren inguruan dagoen jakintza-maila zein den, hau da, irakasleek zer dakiten transexualitatearen inguruan eta haiek, irakasle bezala, ume trans\* baten aurrean dituzten betebeharrak ezagutzen dituzten. Bigarrenik, interesgarria izango litzateke jakitea irakasleek gaiaren inguruan jaso duten formakuntza urteetan zehar aldatu den, hots, duela gutxi ikasten bukatu duten irakasleek prestatutago ateratzen diren kasu hauen aurrean jokatzeko jakiteko.

Lan hau lau kapitulu nagusitan egituratzen da. Lehenengo kapituluan alderdi teorikoak aurkeztuko dira, transexualitatearen kontzeptua eta horrek dakarrenaren azalpenean bete-betean sartuz, eta hezkuntza ikuspegitik bukatuz. Bigarren kapituluan, lan honen metodologia azalduko da, lanerako proposaturiko ikerketa eta lagin mota, parte-hartzaileak eta prozedura aurkeztuz. Hirugarren kapituluan, ikerketaren ostean ateratako emaitzen eta datuen azterketa egingo da. Laugarren eta azken kapituluan, ikerketa honi esker ateratako ondorioak adieraziko dira, eta hurrengo baterako hobekuntzak baita etorkizunean egin ahal diren ikerketentzako iradokizunak ere azalduko dira.

## **MARKO TEORIKOA**

### **1. TRANSEXUALITATEA ULERTU AHAL IZATEKO KONTZEPTUAK**

Transexualitatearen kontzeptua ulertzeko, ezinbestekoa da beste kontzeptu batzuen definizioak jakitea. Printzipioz, ezinbestekoa da sexuaren eta generoaren kontzeptua ezagutzea, baita haien arteko aldea ere. Era berean, transexualitatearen inguruan ikerketa egiteko, sexu- eta genero-identitatea aztertzea komeni da.

### **2. SEXU KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA**

Sexua gizakien ezaugarri fisikoek, biologikoek, anatomikoek eta fisiologikoek definitzen dute, pertsonak arra edo emea bezala sailkatzen dituztenak (Organización de las Naciones Unidas para la Alimentación y la Agricultura, 1996). Normalean, pertsona bat formalki sexatzeko orduan dauden aukeren artean (genitalak, patroi kromosomikoa, hormonak...) erabiltzen dena genitalen behaketa izaten da. Horregatik, ume jaioberri bat jaiotzen denean, medikuak genitalen arabera arra edo emea den adieraziko du (Landaarroitajauregui, 2000).

### **3. GENERO KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA**

Lamas-en (2000) hitzetan generoa honela kontzeptualizatu zen: kultura batek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun anatomikotik garatzen dituen ideia, irudikapen, praktika eta agindu sozialen multzoa, gizonen “berezkoa” (maskulinoa) eta emakumeen “berezkoa” (femeninoa) dena sozialki sinbolizatzeko eta eraikitzeke. Beraz, generoa eraikuntza sozial eta kulturala da, eta hortaz, historian eta eremu geografikoetan zehar genero bakoitzari buruzko ideiek, rolek eta estereotipoek aldaketak jasan dituztela ondoriozta daiteke.

### **4. SEXU ETA GENERO IDENTITATEA**

Landaarroitajauregui-ren (2000) arabera, identitate sexuala pertsona batek bere buruaz egiten duen definizioa da, bere burua sexu baten barruan kokatuz: gizona edo emakumea. Uste sendo horren ganean eraikitzen joango da, eboluzioaren bidez, genero identitatea deritzona; eta horren ganean, izaki sexuatu horren sexualitatea: berez den gizona edo emakumea izateko modu pertsonal eta besterenezina.

Hala ere, sexatzeko bi modu desberdin daude: alosexazioa (“kanpotik” egiten den sailkapen sexuala) eta autosexazioa (“barrutik” egiten den sailkapen sexuala). Bakoitzean erabiltzen diren irizpideak oso desberdinak dira; hori dela eta, batzuetan bat ez etortzeak gertatzen dira. Desadostasun guztien artean, batek bereziki izaten ditu ondorio larriak: jaiotzean egiten den alosexazio formalaren eta autosexazio identitarioaren artekoa. Honetan, paper ofizialek eta judizialek esaten dutena eta pertsonak barrutik sentitzen duena kontrajartzen dira. Biak bat egiten dutenean ez dago arazorik genero identitatea eraikitzen joateko, baina bata bestearekin kontrajartzen direnean zailtasunak sortu ahal dira genero identitatearen eraikuntza prozesu horretan. Hori da pertsona trans\*-en<sup>1</sup> errealitatea (Landaarroitajauregui, 2013).

Nahiz eta autosexazioa bakoitzak bere buruari ematen dion sexu-kategoriari buruzkoa izan, ez da nahastu behar norbaitek bere buruaz egiten duen alosexazioarekin. Bi kasuetan, subjektuak bere burua sexatzen du, baina kasu batean sexazioaren eragilea garuneko sexuazioa da, eta bestean, berriz, garunekoak ez diren beste sexuazio batzuk. Funtsean, genitala. Horregatik, ondorioztatu ahal da alosexazioaren eta autosexazioaren arteko aldea ez dagoela hainbeste objektu sexatuetan (besteak edo norbera), baizik eta, batez ere, sexazio dinamiketan eta irizpide sexanteetan. Beraz, pertsona trans\* batek, bi sexazio desberdin egin ditzake bere buruari buruz eta, bat ez datozela ikusteak min handia eragin diezaioke (Landaarroitajauregui, 2000).

Landaarroitajauregui-k (2013) esaten duenez, gizarteko partaide bezala etengabe egoten gara besteak alosexatzen giza elkarreragineko gertaera bakoitzean. Hala eta guztiz ere, objektu alosexatua ez da alosexazio-egintzaren objektu pasibo bat, baizik eta subjektu aktibo bat, esanahi sexuala duten estimulu propio batzuk igortzen dituena. Estimulu hauek hirugarren mailako sexu-ezaugarriak bezala ezagutzen dira eta kultura-eraikuntzak dira, haien esanahi sexuala arbitrarioa da, baina kultura eta denbora berean adostua. Hirugarren mailako sexu-ezaugarriak izan ahal dira ilea mozteko era, janzkera, eramaten diren apaingarriak... Sexu-ezaugarri hauek izaten dira pertsona trans\*-en aliaturik nagusienak, haietan zentratzen direlako besteek beraiek bere burua ikusten duten begiekin ikusiko ote duten itxaropenarekin (Landaarroitajauregui, 2000).

---

<sup>1</sup> Trans\* terminoa erabiliko da testuan zehar, jaiotzean esleitu zitzaizen genero identitatearekin bat ez datozen pertsonak (transexualak, transgeneroak, trabesti identitate batzuk, etab.) biltzen dituen termino orokorra delako (Missé, 2020).

## 5. TRANSEXUALITATEAREN ERREALITATEA

Aurreko guztia aintzat hartuta esan daiteke transexualitatea pertsona baten bizi-baldintza dela, non identifikazio sexuala (sexu psikologikoa) jaiotzean bere genitalen arabera esleitutakoarekin bat ez datorren (Eusko Jaurlaritza, 2016). Honen zergatia aurkitzeko nahiarekin, hainbait ikerketa egin dira, horietako bat Amsterdamgo Transexualitate Katedrako talde holandarrak egindakoa da. Horretan, Terminalis ildaskaren (BSTc) nukleo basalaren erdialdeko neurona somatostatinkoak kontatu ziren. Dirudenez, gizonek emakumeen neurona horien bikoitza dute. Hau da, bada alde sexual bat maila neuronalarekin alderatuta. Lan horren emaitzen arabera, emakume trans\*-ek neurona horien maila femeninoa dute, eta gizon trans\*-ek, aldiz, neurona horien maila maskulinoa dute. Neurona horien kopurua jaio aurretik antolatzen da eta behin betikoa izango da (Kruijver et al., 2000).

Horrek, beraz, frogatu egiten du gizon edo emakume izatea ez dela aukeraketa bat, baizik eta garunak duen sexazioa. Pertsona trans\*-en kasuan, haien garuna gainontzeko sexazio mailen modu desberdinean sexatu zen, eta gainontzeko sexazio maila horiek izaten dira irizpidetzat hartzen direnak formalki eta informalki alosexatzeko. Hala ere, subjektu horiek, zailtasun gehiago edo gutxiagorekin (normalean asko), haien autosexazioarekin koherentzian doan sexu-identitatea eraikitzen saiatzen dira, gainontzekoek haietaz egiten dituzten alosexazioei aurre eginez (Landaarroitajauregui, 2000).

Garunaren sexazioa haurdunaldian gertatzen denez, pertsonak txikitatik dakite zein den haien sexu psikologikoa, nahiz eta jaiotakoan esleitutakoarekin bat ez etorri. Landaarroitajauregui-k (2000) esan bezala, transexualitate egoeran dauden haurrak modu batean edo bestean eta zailtasun handiago edo txikiagoarekin saiatuko dira haien benetako sexua ikusgarria egiten. Horregatik, bai haurren jolasa, bai keinuen eta portaera heterotipikoen ereduak garunaren transexazioa iragartzeko baliagarriak izan ahal dira. Iragarle horiek ez dira definitzaileak ezta behin betikoak, baina adierazgarriak dira.

Honetan gehiago sakontzeko Mayor-ek (2020) ume trans\*-ek ematen dituzten lehenengo pistak batu ditu bere *Tránsitos* liburuan. Neska trans\*-ek arropa

maskulinoenganako gorrotoa erakusten dute, arropa femeninoa (gonak, soinekoak, bikiniak, kuleroak, takoiak...) atsegin duten bitartean. Mutil trans\*-ekin guztiz kontrakoa gertatzen da, txandalak nahiago dituzte, eta gonak eta soinekoak baztertzen dituzte. Horrez gain, ile motza eramateko desioa erakusten dute eta ez dute ilean inolako apaingarririk eramateko gogorik. Neska trans\*-ek, bitartean, ile luzea izateko nahia dute eta topatzen duten edozer gauza erabiltzen dute ileorde gisa (eskuoihalak, arropa, bestean ilea...).

Neska trans\*-ak ipuin eta pelikuletako pertsonai femeninoekin identifikatzen dira eta mutilak, ordea, maskulinoekin. Gainera, neska trans\*-ek arrosa kolorearenganako gustua erakusten dute eta urdinarenganako gorrotoa. Mutil trans\*-ek, aldiz, kolore urdina nahiago dute eta arrosak ezinegona eragiten die, eta haien bizitzatik arrosa duen edozer saihesten saiatzen dira. Hala ere, Mayor-ek (2020) azpimarratzen du batzuetan behatu daitekeela gustu hauek ez direla benetan haien gustuak; errealitatean, ezeztatutako haien genero-identitatea adierazteko era bat baino ez da izaten.

Baina Landaarroitajauregui-ren (2000) eta Mayor-en (2020) hitzetan, benetan adierazgarria den zerbait haurren artean egiten den jolas sinbolikoa izaten da. Aurreko paragrafoetan adierazitako moduan neska trans\*-ek rol femeninoak hartu ohi dituzte eta mutil trans\*-ek rol maskulinoak. Horrek aukera ematen die haien pertsonaia edo rolaren izenaz deituak izateko eta pertsonai horren generoarekin tratatuak izateko (haien genero-identitatearen bat egiten duena). Horregatik, aukera izaten dutenean saiatzen dira jolas sinboliko hauek denboran luzatzen, pertsonai hori izaten jarraitzeko eguneroko jarduera guztietan zehar: afarian, dutxa hartzean, ohera joateko orduan...

Garrantzitsua da haurrarekin elkarreraginean aritzen diren guztiek azkar jakitea, nolana ere, haien hezkuntza-esku-hartze zuzentzaileak ez duela inolako normalizazio-arrakastarik izango, baizik eta ondorio kaltegarri ugari, bai adin txikikoan —persona gisa garatzeko orduan, haurrarekin dituzten elkarreraginetan, etab.—, bai haur horiek dauden giza sistemetan ezartzen diren dinamiketan (familia, ikasgela, taldea, etab.). Azken finean, dagoena onartu eta haientzat diseinatuta ez dagoen mundu batean sartzea erraztu behar zaie. Izan ere, haiekin hezkuntza bereziaren bi printzipio gidariak erabili behar ditugu: normalizazioa eta inklusioa (Landaarroitajauregui, 2000).



## 6. TRANSEXUALITATEA HEZKUNTZA-EREMUAN

### 6.1. MARKO LEGALA

Genero-identitatea bizitza osoan zehar eraikitzen da, autokontzeptuaren eta inguruko pertsonen haren gainean duten pertzepzioaren bidez eratuz, eta haurtzaroan egonkorra izan daiteke. Beraz, baliteke Lehen Hezkuntzako etapan genero identitate batzuk bat ez etortzea jaiotzean esleitutako sexuarekin, hots, transexualitate kasuak egon ahal dira. Hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak zenbait neurri ezarri behar direla ikusi du, ikasleak integratzeko eta adingabeak bat transexualitate-egoeran dagoenean hezkuntza-komunitatekoak diren pertsona guztiei arreta egokia emateko (Nafarroako Gobernua, 2016). Izan ere, eskola inklusiboaren hezkuntza-funtzio nagusietako bat da ikasle guztiei heltzea, haztea eta garapen integrala lortzea ahalbidetuko dien sozializazioan laguntzea. Aniztasuna, ikasteko eta hobetzeko aukera gisa eta ikaskuntzei laguntzeko aberastasun gisa baloratzen duena (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Aurrekoa helburutzat hartuta, azken urteotan eman den aldaketa esanguratsuenetako bat ekainaren 28ko 14/2012 Legea da, genero-identitatea dela-eta bereizkeriarik ez egiteari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzkoa. Lege horrek euskal administrazio publikoa konprometitzen du bere metodo, curriculum eta hezkuntza-baliabideek genero-identitateen aniztasuna ulertzeko eta errespetatzeko balio dezaten. Horrez gain, ikasle, langile eta irakasle trans\*-ei babes egokia bermatzeko konpromisoa hartzen du, bereizkeria, gizarte-bazterketa eta genero-identitateagatiko indarkeria mota guztien aurka, eskola-eremuan (Ley 14/2012, 2012).

Beste ekarpen garrantzitsu batzuk dira abenduaren 22ko 236/2015 eta 234/2015 DEKRETUAK. Lehenengoaren bidez, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen da. Horren arabera, nahitaez onartu behar da aniztasun afektibo-sexuala eta kulturala, eta genero- eta kultura-nortasunak malguak eta askotarikoak direla, eta zalantzan jarri behar dira kultura-, genero- eta sexu-aukerei lotutako desberdintasuna sustatzen duten ereduak (DECRETO 236/2015, 2016). Horretaz aparte, komeni da argitzea, transexualen dokumentazio administratiboari buruzko 234/2015 DEKRETUAK (2016) adierazten duen moduan, ikastetxean trantsizioarentzako hartu beharreko oinarrizko antolamendu-neurriak hartzeko, nahikoa dela familiak, adingabeak eta irakasle-taldeak bat egitea eta egoera baloratzea,

ikastetxeak erabakitzen diren neurriak hartu behar izan ditzan, Dekretuan adierazten den ibilbide formala egin beharrik gabe. Azken honek, asko erraztu eta azkartu izan du ume trans\*-en trantsizio prozesua.

## **6.2. HEZKUNTZA ARLOAN TRANS ADINGABEEI LAGUNTZEKO GOMENDIOAK**

### **6.2.1. TRANSEXUALITATE EGOERAREN IDENTIFIKAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA**

Genero identitatea eta jaiotzean esleitutako sexua bat ez badatoz, adingabearen legezko tutoreetako edozeinek jakinarazi ahalko dio egoera ikastetxeari. Gainera, hezkuntzako profesionalen eskumena izango da egoera hartu eta entzutea. Bat ez etortzearen berri eman ondoren, Zuzendaritza Taldeak informazio hori ikaslearen irakasleei eta ikastetxeko orientazioaren arduradunei helaraziko die, hezkuntza-premiak identifikatu ahal izateko eta beharrezko sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-neurriak hartu ahal izateko, adingabearen identitatea errespetatzen dela eta ikastetxean erabat integratzen dela ziurtatzeko (Nafarroako Gobernua, 2016).

Era berean, ikastetxeko edozein irakaslek ikusten badu ikasle adingabe batek behin eta berriz eta luzaroan adierazten duela jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren sexu-identitatea, eta haren legezko ordezkariak ez badute horren berri eman, Zuzendaritza Taldeari jakinaraziko dio. Zuzendaritzak adingabearen legezko tutorei bilera bat proposatuko die irakasle tutorearekin eta ikastetxean hezkuntza orientazioaren ardura duen pertsonarekin, eta bilera horretan gertatutakoaren berri emango zaie. Bilera horretan, hezkuntza arloan zein kanpoan dauden baliabideen berri emango da (erakundeen zerbitzuak, transexualitate egoeran dauden adingabeen familien elkarteak...). Horrez gain, hezkuntza beharrak identifikatzeko eta ikastetxean egin daitezkeen jarduerak adostasunez zehazteko prozesua hasteko aukera planteatuko zaie (Nafarroako Gobernua, 2016).

Hala ere, gerta daiteke familiak eta ikastetxeak egoeraren balorazioa ez partekatzea, eta haien artean desadostasunak egotea. Adingabearen legezko tutoreek transexualitate egoera ez onartzearen kasuan, Zuzendaritza Taldeak eta irakasle taldeak neurriak hartuko dituzte eskola esparruan adingabearen ongizatea eta inklusioa ziurtatzeko.

Horrez gain, ikastetxea saiatuko da familiari laguntzen egoera ulertu, onartu eta kudeatzeko prozesuan, adingabeak bere nortasuna eta identitatea garatzeko duen eskubidea errespetatuz, eta hezkuntza-komunitatearentzako sensibilizazio- eta prestakuntza-saioak antolatuko ditu (irakasleak, ikasleak, familiak...). Halaber, ikastetxea bada ez duena egoera onartzen eta ez duena familiak eskatutako antolaketa neurririk hartu nahi, familiak gertaeren berri emango dio Hezkuntzako Ikuskaritzari (Eusko Jaurlaritza, 2016).

### **6.2.2. IKASTETXEAN HARTU BEHARREKO OINARRIZKO ANTOLAMENDU-NEURRIAK**

Trantsizio-prozesuari harrera egiteko plan bat prestatuko da, eta kontuan hartuko da, betiere, kasu bakoitzaren berezitasuna, honako alderdi hauei dagokienez: legezko ordezkarien prestasuna, onarpen sozialaren maila ikasgelan eta ikastetxean eta transexualitate-egoeran dagoen adingabeak duen emozio- eta bizi-egoera (Nafarroako Gobernu, 2016).

Irakasleak eta zentroko gainerako langileak, ikasleak berak eta/edo familiak jakinarazitako izenaren arabera zuzenduko zaizkio ikasleari, bai eskolako jardueretan, bai eskolaz kanpoko jardueretan, azterketak barne. Gainera, ikastetxean bertan erabiltzeko dokumentazio administratiboa (klaseko zerrendak, kalifikazioen informazio-buletinak, liburutegi-txartelak, ikasle-txartelak...) ikaslea identifikatuta dagoen sexuari egokituko zaio. Ikastetxeak uniformeak izatekotan, pertsona bakoitza identifikatuta sentitzen den arropa erabiltzeko eskubidea bermatuko da. Horrez gain, behar diren kudeaketak egingo dira, ikasleek, nahi duten neurrian, ikastetxean sexu bidez bereizita egon daitezkeen espazio guztiak (komunak, aldagelak...) erabili ahal izan ditzaten. Beti hartuko da kontuan adingabearen iritzia, eta behar bezala jokatu da haren segurtasuna eta intimitatea bermatzeko (Eusko Jaurlaritza, 2016).

### **6.2.3. PRESTAKUNTZA PLAN INTEGRALA**

Transexualitate-egoeran dagoen adingabeari laguntzeko, funtsezkoa da errealitate hori ezagutzea eta ulertzea. Horregatik, hezkuntza komunitate osoa hartuko duen prestakuntza plan integrala ezarriko da. Plan integral horrek kasu bakoitzaren

berezitasunaren beharrei erantzungo die beti. Plan horren barruan, ikastetxeko langileentzako prestakuntza eta familientzako prestakuntza egongo dira. Irakasleentzako prestakuntzan gutxienez bi saio egingo dira: lehena, haur eta gazteen transexualitatea ezagutzen hasteko, eta, bigarrena, eguneroko dinamikan aurkitutako egoera eta zailtasunak aztertzeko (Nafarroako Gobernua, 2016). Bestetik, Mayor-rek (2020) dioen moduan, eskolako gainerako gurasoei ezagutza transmititzea funtsezkoa da, izan ere, ikasgelako beste haurrek gertatzen ari dena eta gurasoen iritziak alderatuko dituzte, eta, jakintzatik edo ezjakintasunetik abiatuta, haiek esaten dietenak gurasoen agintaritzak ematen duen erabateko balioa izango du.

Horrez gain, ikasleen artean gizakiaren sexu-gertaeraren aniztasuna ezagutu eta sustatzeko programa bat garatuko da, non transexualitatea beste aniztasun-gertaera gisa agertuko den. Esku-hartzea gela bakoitzean egingo da eta, hala badagokio, ikastetxe osoko ikasleekin, esku-hartze mota, adin eta kasu bakoitzaren beharretara egokituz (Mayor, 2020). Batzuetan, trantsizioa egiten ari den haurrak nahiago du bertan egotea eta beste batzuetan ez. Saio horiek irakasleek beraiek egiten dituzte, edo ikastetxetik kanpoko eta gaian adituak diren profesionalak (batzuetan pertsona trans\*-ak ere badirenak).

#### **6.2.4. BEREIZKERIA ETA ESKOLA-JAZARPEN KASUETARAKO NEURRIAK**

Gay, lesbiana, bisexual edo trans\* izatea, eta kulturalki gizonei eta emakumeei esleitutako genero-arauak ez betetzea dira eskolako jazarpenaren arrazoi ohikoenak. Horregatik, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira gerta litezkeen bereizkeria edo jazarpen jokabideei aurrea hartu eta haietan esku hartzeko (Nafarroako Gobernua, 2016).

Horrela, hezkuntza-komunitateko edozein kidek, identitate edo sexu-orientazioagatik, ikasle baten aurkako eskola-jazarpena, genero-indarkeria edo haurren aurkako tratu txarren egoeraren berri badu edo susmoak baditu, tutoreari, aholkulariari, ikastetxeko orientatzaileari edo zuzendaritza-taldeari jakinarazi behar dio. Nolanahi ere, informazioa jasotzen duenak beti jakinaraziko dio zentroko zuzendaritzari (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Horrez gain, familiak ume trans\*-aren egoera onartzen ez duenean, tratatu txarren edo babesgabetasun zantzurik atzemanaz gero, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25. artikuluari (2005) jarraituz, Zuzendaritza Taldeak egoera horren berri emango die Gizarte Zerbitzuei.

## **METODOLOGIA**

Ikerketa honetan metodologia kuantitatiboa erabili da. Horrek esan nahi du datuak estatistikarekin lotutako baliabideen bidez kontabilizatu direla. Metodologia kuantitatiboa erabiltzearekin bilatu dena da jasotako datuen objektibotasuna bermatzea baita generalizazioa egiteko ematen duen aukera (Ugalde eta Balbastre-Benavent, 2013).

Metodologia horren barruan aurrera eramandakoa azterketa pilotua izan da. Honek, aurrerago lagin probabilitikoa erabiltzean aurkituko diren joera eta emaitzei buruzko informazioa eman dezake. Informazio hori erabili ahal da azterketaren planteamendua aldatzeko, laginketa-teknika konplexuagoa erabili aurretik (Ochoa, 2015). Beraz, esan daiteke aurrerago egingo den lagin probabilitikoaren lehenengo fasea izango litzatekela egindako azterketa pilotua. Honen aukeraketaren justifikazioa garatutako lanean dago oinarrituta. Izan ere, kontuan hartu behar da GRAL baten prozesuaren barruan egindako ikerketa bat dela eta beraz, helburu duela kolektibo batek gai baten inguruan dituen tendentzietara gerturatzea.

## **LAGINA**

Aurreko paragrafoan adierazitako moduan, ikerketa honetan erabili den lagina ez probabilitikoa izan da, hain zuzen ere, lagin ez probabilitikoen barruan, komenientziatzko lagina. Komenientziatzko laginean ikerlariak oso hurbil edo eskuragarri dituen elementuak sartzen ditu laginean. Hau da, berarengandik oso hurbil dauden pertsonak eta ikerketan parte hartzeko prest daudenak (Juaristi, 2003). Beraz, ikerketa honetan aurreko praktikaldietako eskolekin egindako harremanaz baliatuta, eskola horietako irakasleei bidali zitzairen. Horrez gain, ezagunen artean zeuden irakasleei bidali zen baita karrera batera ikasitako eta aurten karrerako 4. maila kurtsatu duten etorkizuneko irakasleei ere. Komenientziatzko lagina ikerketa esploratzaileetan eta azterketa pilotuetan erabiltzen da. Hala ere, laginketa mota guztiak bezala badu bere alde txarra. Izan ere, era honetako laginekin, ikerketaren emaitzak bideratuko dituen lagin soslaitu bat hartzeko arrisku handia egon daiteke (Juaristi, 2003).

## PARTE-HARTZAILEAK

Ikerketan adin anitzeko eta genero desberdineko 62 Lehen Hezkuntzako irakaslek parte hartu dute. Parte-hartzaileek Euskal Herriko eskola desberdinetan egiten dute lan. Beheko taulan parte-hartzaileen sailkapena ikus daiteke lantoki, genero eta adinaren arabera.

Parte-hartzaileak lantoki, genero eta adinaren arabera							
	Eskola kontzertatuan		Eskola publikoan		Ez dute lan egiten		
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
20-29 urte bitartean	5	10	2	5	5	24	51 (%82,26)
30-39 urte bitartean	1	2		1			4 (%6,45)
40-49 urte bitartean	1	1		1			3 (%4,84)
50 urte edo gehiago		1	1	2			4 (%6,45)
	7 (%11,29)	14 (%22,58)	3 (%4,84)	9 (%14,51)	5 (%8,06)	24 (%38,71)	62 (%100)
	21 (%33,87)		12 (%19,35)		29 (%46,77)		

## PROZEDURA

Ikerketa aurrera eramateko, 17 galderako inkesta bat egin da. Inkesta honen bidez lortu nahi dena da aztertzea irakasleek transexualitatearen inguruan duten jakintza-maila eta jasotako formakuntza. Horrez gain, jakin nahi da duten informazioa nahikoa den transexualitate kasuen aurrean nola jardun behar duten argi izateko.

Inkesta Google Forms bidez egin da, inkestak online sortu eta partekatzeko aukera ematen duena. Horrez gain, inkestaren erantzunak automatikoki eta era ordenatuan biltzen ditu formularioetan, erantzunen grafikoekin eta datuekin denbora errealean. Horri gehitu behar zaio edozein momentuan inkestan aldaketak egiteko aukera ematen duela, hau da, akatsik balego edo galderen bat espero zen bezala ulertzen ez bada zuzenketak egin daitezke. Hala ere, kasu batzuetan gerta daiteke parte hartuko duen kolektiboak inkestak online betetzeko azpiegiturarik edo baliabiderik ez izatea (Alarco eta Álvarez-Andrade, 2012). Kasu honetan, ordea, ez dago arazo hori, gaur egun irakasle gehienek hainbat gailu elektronikoki dituztelako (esate baterako, mugikorrak, ordenagailuak, tabletak...), onlineko inkestak egitea ahalbidetzen dietenak. Aurreko guztiagatik, ikerketa honetan inkestak online egiteko helburuarekin, Google Forms erabiltzea aukerarik onena da erraztasun ugari ematen dituelako.

<b>Inkestaren galderak</b>
1- Generoa
2- Adina
3- Non egiten duzu lan?
4- Badakizu zer den transexualitatea?
5- Azaldu zer den transexualitatea zuretzat
6- Transexualitate kasuren bat ezagutzen duzu?
7- Zure bizitza profesionalean zehar ikasle trans* batekin edo batzuekin topo egin duzu?
8- Aurrekoa baiezkoa bada, uste duzu kasuaren edo kasuen aurrean behar bezala jardun zenuela?
9- Aurrekoa baiezkoa bada, uste duzu behar bezala jardun zenuela aurretik zeneukan formakuntzagatik edo egoerak bultzatuta, momentuan ikasi zenuenagatik?
10- Uste duzu orain klasean ume trans* bat izango bazenu, kapaz izango zinela egoeraren aurrean behar bezala jarduteko?
11- Unibertsitatean trans* errealitateari buruzko formakuntza izan duzu/zenuen, hezkuntza-arlotik nola ekin jakiteko?
12- Zure kabuz trans* errealitateari buruzko formakuntza bilatu duzu?
13- Eusko Jaurlaritzak hezkuntza profesionalentzat transexualitate kasuen aurrean



jarduteko atera dituen gomendio eta aholkuak ezagutzen dituzu?

14- Eskolan transexualitate kasu bat identifikatzen baduzu, badakizu zein pausu jarraitu behar dituzun egoera ezagutzera emateko?

15- Eta familiak hauraren transexualitate egoera ez onartzean?

16- Irakasle bezala badakizu zeintzuk diren zure betebeharrak transexualitate kasuen aurrean?

17- Uste duzu garrantzitsua dela unibertsitatean gai honen inguruko formakuntza izatea?

## **EMAITZAK**

Atal honetan ikerketan lortutako datuak aztertuko dira. Horretarako, kontuan hartuko dira irakasleek inkestako galderei emandako erantzunak. Sarreran azaldutako moduan, ikerketa honek bi helburu nagusi ditu eta datuak bi helburu horien arabera sailkatuko dira. Lehenengo atalean irakasleen jakintza orokorraren analisia egingo da eta bigarrenean, ordea, adin-tartearen arabera duten formakuntzaren azterketa eta konparazioa.

## **IRAKASLEEN JAKINTZA OROKORRA**


Irakasleek gaiaren inguruan zer dakiten aztertzeko lehenengo jakin behar da gaia ezagutzen duten eta zertaz doan dakiten edo ez. Transexualitatea zer den badakiten galderaren aurrean 53 pertsonak baietz erantzun dute, 2 pertsonak ezetz erantzun duten bitartean eta 7 pertsonak ez daudela ziur. Hala ere, hurrengo galderan transexualitatea haien zer den azaltzea eskatu zaie, eta transexualitatea definitzeko hainbat era ikusi dira.

Batzuk adibideak erabili dituzte, hala nola, “adibidez, mutil baten genitalak dituen baina neska sentitzen (eta beraz, den) pertsona” edo “adibidez genital maskulinoekin jaiotako emakumea edo alderantziz”. Beste batzuk, ordea, zertaz ari diren dakitela demostratzen duten definizioak eman dituzte, esate baterako, “gizona emakume baten gorputzean edo emakumea gizon baten gorputzean” edo “pertsona bat berari egokitzen ez zaion gorputz baten jaiotzen denean”. Badaude transexualitatea definitu beharrean transexualitatearekin harremana duten beste kontzeptu batzuk definitu dituztenak ere. Horien artean badago adibidez trantsizioa definitu duena: “pertsonaren sexu aldaketa, sentitzen duen generoan bizitzeko eta berez den moduan izateko, nahiz eta jaiotzako sexu organoekin bat ez etorri”.


Hala ere, badaude transexualitatea definitu dutenak eta, hori egin eta haratago joan direnak ere. Izan ere, “pertsona bati jaiotzerakoan esleitu zaion sexua eta pertsona horren genero identitatea bat etortzen ez direnean” moduko adierazpenak jaso dira baina horrez gain, transexualitatea ulertu eta gero ateratako ondorioak ere agertu dira, esate baterako, “genitalek ez dutela sexu identitatea zehazten. Pertsonen galdetzen identifikatu dezakegu, bakoitzaren autopertzepzioarekin erlazionatuta dagoelako”.

Gaiarekin zelako gertutasuna duten jakiteko, transexualitate kasuren bat ezagutzen duten galdetu zaie baita haien bizitza profesionalean ikasle trans\*-ik izan duten. %85,5-ak transexualitate kasuren bat ezagutzen duela erantzun duen bitartean, parte-hartzaileen %45,2-ak baieztatu du ikasle trans\* batekin edo batzuekin topo egin duela.

Transexualitate kasuren bat ezagutzen duzu?




Zure bizitza profesionalean zehar ikasle trans\* batekin edo batzuekin topo egin duzu?




%45,2 horretatik, %65,5-ak uste du kasuaren aurrean ondo jardun zuela, %20,7-a ez dago ziur eta %3,4-ak uste du ez zela gai izan ikasle trans\*-aren aurrean behar bezala jarduteko. Hala ere, inkestaren hurrengo galderak argitzen duen moduan, ondo jardun zuela uste duen %65,5 horretatik, %80-ak momentuan edo bere kabuz ikasitakoagatik izan zela uste du.

Aurrekoa baiezkoa bada, uste duzu kasuaren edo kasuen aurrean behar bezala jardun zenuela?




Aurrekoa baiezkoa bada, uste duzu behar bezala jardun zenuela aurretik zeneukan formakuntzagatik edo egoerak bultzatuta, momentuan ikasi zenuenagatik?



Irakasleen jakintza orokorra aztertzen bukatzeko, galdetu zaie uste duten orain kapaz izango zirela ikasle trans\* baten aurrean behar bezala jokatzeko. Horren aurrean %53,2-ak baiezkoa erantzun du, %30,6-ak ezezkoa eta %6,5-ak ez dagoela ziur adierazi du.

Uste duzu orain klasean ume trans\* bat izango bazenu, kapaz izango zinela egoeraren aurrean behar bezala jarduteko?




## IRAKASLEEN FORMAKUNTZA ADINAREN ARABERA

Adin desberdineko irakasleek duten formakuntza aztertzeko egin zaien lehenengo galdera unibertsitatean formakuntza izan zuten izan da. Horren aurrean 49 pertsonak ezetz erantzun dute, batek baietz eta 12-k baietz, baina oso gutxi. Argitzekoa da, baietz erantzun duten guztiak 20-29 urte bitartekoak direla. Hala ere, 20-29 urteetako pertsonen artean %74,51-k erantzun du ez duela unibertsitatearen aldetik transexualitatean inguruko formakuntzarik jaso.

Hala ere, ikusi da inkesta erantzun duen irakasleen gehiengoak garrantzia ematen diola transexualitatearen inguruan prestatuta egoteari. Izan ere, nahiz eta unibertsitateetatik formakuntzarik ez jaso, %74,19-k haien kabuz gaiaren inguruko informazioa eta formakuntza bilatu du, gehiengoak gaiaren inguruan irakurriz (%59,08), baina badira hitzaldietara (%9,61) edo ikastaroetara (%5,50) joan direnak ere. Adinaren ikuspegitik aztertzen badira jasotako erantzunak, ikus daiteke irakasleek orokorrean gaiaren inguruan ikasteko duten prestasuna parekoa dela, adinen artean desberdintasun handirik egon gabe.

Benetan duten jakintza-maila eta jaso duten formakuntza zein den jakitetik gertuago egoteko, Eusko Jaurlaritzak (2016) ateratako “Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko Gida”-n hezkuntza eremuan agertzen denari buruz galdetu zaie, izan ere, dokumentu hori edozein irakaslek ezagutu beharko luke ikasle trans\* guztien eskubideak berma daitezzen. Dokumentu horretan agertzen diren gomendio eta aholkuen ezagutza irakasleen artean, ordea, ez da izan behar bezain handia. Erantzun dutenen artean, %40,3-ak ez du gida ezagutzen, %46,8-ak badaki gida baten existentziaz baina ez du irakurri eta %8,1-k bakarrik ezagutzen du gida horretan dauden gomendioak.

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza profesionalentzat transexualitate kasuen aurrean jarduteko atera dituen gomendio eta aholkuak ezagutzen dituzu?




Aurrekoa adinaren arabera aztertzen badugu, esan daiteke adin-tarte guztietan gailentzen den erantzuna dela badakitela gida bat existitzen dela baina ez dutela irakurri. Horrek, demostratzen du adin-tarte bakoitzak eman dituen erantzunak nahiko antzekoak direla, eta alderdi honetan ez dagoela desoreka handirik adinaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren gidan agertzen diren aholkuek gain, eskolan transexualitate kasu bat identifikatzean, kasua ezagutzera emateko jarraitu beharreko prozesuari buruz ere galdetu zaie. Galdera horren aurrean, parte hartu duten irakasleen %80,6-ak erantzun du ez dakiela zein pausu jarraitu behar dituen, %8-ak ez dagoela ziur eta %11,3-ak badakiela zein den jarraitu beharreko prozedura. Galdera honetan, berriz ere, adin-tarte desberdinetako irakasleen talde bakoitzak erantzun duena konparatuz eta talde bakoitzaren tamaina kontuan hartuz, adin-tarte bakoitzaren erantzunak antzekoak direla ikusten da.


Galderen artean ezezko gehien jaso dituen eta beraz, ezjakintasun handiena erakutsi duena familiak haurraren transexualitate egoera onartzen ez duenean zer egin behar den dakiten galdetu zaienean izan da. Honetan, parte-hartzaileen %95,2-k erantzun du ez dakiela zer egin behar den. Azpimarratzekoa da baietz erantzun duten 2 pertsona bakarrak adin-tarte gazteenaren parte direla.

Horrez gain, inkestan galdetu zaienean dakiten zeintzuk diren haien betebeharrak irakasle bezala transexualitate kasuen aurrean, %8,1-ak baino ez du baietz erantzuk. Irakasleen %69,4-ak uste du suposatu ahal dituela zeintzuk izan ahal diren baina ez dago ziur, eta gainerakoak, %22,6-ak, ez daki zeintzuk diren irakasle baten betebeharrak kasu hauen aurrean. Galdera honetan, bai igarri dela adinen arteko desberdintasun handiago bat. Grafikoetan ikus daitekenez, alderdi honetan 20-29 adin bitartekoak dira ezjakintasun handiena erakusten dutenak besteekin konparatuz.


Irakasle bezala badakizu zeintzuk diren zure betebeharrak transexualitate kasuen aurrean? 20-29 urte bitartekoen erantzunak




30-39 urte bitartekoen erantzunak



40-49 urte bitartekoen erantzunak



50 urte baino gehiagokoen erantzunak



Inkestarekin bukatzeko azkeneko galdera bat egin zaie. Horretan, haien iritzia jakin nahi da unibertsitatean gai honen inguruko formakuntza izatearen garrantziaren inguruan. Galdera hau erantzutean irakasleen %98,4 ados egon da esatean haien lana ongo egin ahal izateko ezinbestekoa iruditzen zaiela transexualitatearen inguruko formakuntza izatea unibertsitatearen aldetik, gaiari buruz ikasteko prestasuna izatearen tendentzia erakutsiz. Horrez gain, badago garrantzia gehitu diona esanez ez dela bakarrik beharrezkoa irakasle bezala lana ondo egiteko, baizik eta jendartean gertatzen diren kasuak ere ulertu eta laguntzeko.

## ONDORIOAK

Ikerketa honetan ateratako emaitzen artean nabarmentzekoa da, transexualitatea azaltzeko modu oso desberdinak jaso direla, batzuk besteak baino zuzenagoak. Izan ere, batzuk gaiaren nondik norakoak ezagutu arren transexualitatea definitzeko erabili duten adierazpenak ez dira teknikoki egokiak izan. Horren adibide dira “gizona emakume baten gorputzean edo emakumea gizon baten gorputzean” edo “pertsona bat berari egokitzen ez zaion gorputz baten jaiotzen denean” bezalako definizioak. Izan ere, esan nahi dutena ulertu arren, gizona bada, gizon baten gorputza izango du alua izan arren, gizona delako, eta gauza bera emakume trans\*-en kasuan; emakumeak direnez, emakumeen gorputza dute nahiz eta zakila izan. Era berean, “egokitzen ez zaion gorputz batean jaio dela” esaten denean oker egindako adierazpena da. Egokitzen ez zaiona ez da bere gorputza, baizik eta medikuek bere genitalak ikustean egindako sailkapena.

Gaia duela urte batzuk baino agerikoagoa eta ezagunagoa izan arren, ikerketaren arabera, oraindik hezkuntzako profesionalek zalantza handiak dituzte irakasle gisa haurren transexualitate kasuen aurrean egin behar duten lanari eta jarraitu beharreko prozedurari buruz. Hala ere, edozein egoeraren aurrean irakasleak jakin beharko luke zeintzuk diren haren betebeharrak eta nola jokatu behar duen. Transexualitatearen kasuan ez da desberdina izan behar. Azterketa honen bidez egungo irakasleak kasu horiei erantzuteko prestatuago egotearen tendentzia agertzea espero bazen ere, ikusi ahal izan da ezjakintasuna orokorra dela. Izan ere, titulua lortu berri duten askok ez dute gaiari buruzko prestakuntzarik jaso, edo izanez gero, oso eskasa izan da. Beraz, esan daiteke transexualitate kasu gehiago ezagutzera eman arren irakasleek oraindik ere unibertsitateen eskutik gaiaren inguruko formakuntza jaso gabe jarraitzen dutela.

Etorkizuneko ikerketetarako interesgarria izango litzateke azterketa pilotu honekin jarraituz lagin probabilistiko bat aurrera eramatea, biltzen diren datuak zehatzagoak izan daitezen Euskal Herriko populazioa osatzen duten irakasle guztien zerrenda izanez eta irakasle guztiek laginean aukeratuak izateko probabilitate bera izanez. Horrez gain, ikerketa honen muga izan den adin-tarte desberdinetako irakasleen kopuru desorekatua izatea konpondu beharko lukete etorkizuneko ikerketek, adin desberdina duten irakasleen formakuntzaren artean egingo den konparazioa fidagarriagoa izateko.



Ikerketa ere beste ikuspuntutik enfokatu daiteke eta irakasleei galdetu beharrean, ikasle trans\*-ei eta haien familiei galdetu ahal zaie eskolan irakasleen aldetik izandako trataerari buruz. Gauzak horrela, etorkizunerako ikerketa-lerro bat irekita gelditzen da, hor iker daitezen trans\* diren ikasleen eta familien iritziak irakasleek transexualitatearen inguruan duten formakuntzari buruz.

## **BIBLIOGRAFIA**

Alarco, J.J. eta Álvarez-Andrade, E.V. (2012). Google Docs: una alternativa de encuestas online. *Educación Médica*, 15 (1), 9-10. [https://www.researchgate.net/publication/230997043\\_Google\\_Docs\\_una\\_alternativa\\_de\\_encuestas\\_online](https://www.researchgate.net/publication/230997043_Google_Docs_una_alternativa_de_encuestas_online)-tik berreskuratua.

DECRETO 234/2015, de 22 de diciembre, sobre la documentación administrativa de las personas transexuales. *Boletín Oficial del País Vasco*, 5, de 11 de enero de 2016. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600069a.pdf>-tik berreskuratua.

DECRETO 236/2015, de 22 de diciembre, por el que se establece el currículo de Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco. *Boletín Oficial del País Vasco*, 9, de 15 de enero de 2016. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141a.pdf>-tik berreskuratua.

Eusko Jaurlaritz. (2016). *Guía de atención integral a las personas transexuales. Actuaciones recomendadas desde los ámbitos educativo, social y sanitario*. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia\\_transexualidad/es\\_def/adjuntos/guia\\_transexuales\\_es.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_transexualidad/es_def/adjuntos/guia_transexuales_es.pdf)-tik berreskuratua.

Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf>-tik berreskuratua.

Kruijver, FP., Zhou, JN., Pool, CW., Hofman, MA., Gooren, LJ. eta Swaab, DF. (2000). Male-to-female transsexuals have female neuron numbers in a limbic nucleus. *The Journal of Clinical Endocrinology & Metabolism*, 85 (5), 2034-2041. <https://academic.oup.com/jcem/article/85/5/2034/2660626>-tik berreskuratua.

Lamas, M. (2000). Diferencias de sexo, género y diferencia sexual. *Cuicuilco*, 7 (18), 91-114. <http://www.redalyc.org/pdf/351/35101807.pdf>-tik berreskuratua.

Landaarroitajauregui, JR. (2000). Términos, conceptos y reflexiones para una comprensión sexológica de la transexualidad. *Anuario de sexología*, 6, 79-126. <https://sexologiaenredessociales.files.wordpress.com/2013/08/a6-5-landa.pdf>-tik berreskuratua.

Landaarroitajauregui, JR. (2013). Género genital o la obligación legal de estar genítalmente clasificado. En JR. Landaarroitajauregui (Ed.), *Genus: genitales y generación*. Iesus. [https://naizen.eus/wp-content/uploads/2019/02/genero\\_genital.pdf](https://naizen.eus/wp-content/uploads/2019/02/genero_genital.pdf)-tik berreskuratua.

Ley 14/2012, de 28 de junio, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales. *Boletín Oficial del Estado*, 172, , de 19 de julio de 2012, 51730-51739. <https://www.boe.es/boe/dias/2012/07/19/pdfs/BOE-A-2012-9664.pdf>-tik berreskuratua.

Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia. *Boletín Oficial del Estado*, 274, de 14 de noviembre de 2011, 117217-117276. <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2005/02/18/3/dof/spa/pdf>-tik berreskuratua.

Mayor, A. (2020). *Tránsitos*. Bellaterra.

Missé, M. (2020). Sexu aniztasunaz hausnartzeko sarrera bat. En *Dibertsitatea. Sexu-genero sistema*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

[https://egelapi.ehu.eus/pluginfile.php/284054/mod\\_resource/content/1/0.%20Sexu%20aniztasunaz%20hausnartzeko%20sarrera%20bat.pdf](https://egelapi.ehu.eus/pluginfile.php/284054/mod_resource/content/1/0.%20Sexu%20aniztasunaz%20hausnartzeko%20sarrera%20bat.pdf)-tik berreskuratua.

Nafarroako Gobernua. (2016). *Protocolo educativo ante casos de transexualidad*.

<https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/1054960/ProtocoloTrans+C AST+Def+web.pdf/1c7bb04e-583f-4fde-91ea-15e49c7ad795>-tik berreskuratua.

Naizen. (2021). *De la ignorancia al conocimiento. Historia reciente y cambio de paradigma en la comprensión y el acompañamiento de la transexualidad infantil y juvenil*. <https://naizen.eus/comprender/historia-reciente/de-la-ignorancia-al-conocimiento/>-tik berreskuratua.

Ochoa, C. (2015ko maitatzaren 29). Muestreo no probabilístico: muestreo por conveniencia. *Netquest*. <https://www.netquest.com/blog/es/blog/es/muestreo-por-conveniencia>-tik berreskuratua.

Organización de las Naciones Unidas para la Alimentación y la Agricultura. (1996).

*Vocabulario referido al género*. Proyecto FAO. <http://www.fao.org/3/x0220s/x0220s01.htm>-tik berreskuratua.

Ugalde, N. eta Balbastre-Benavent, F. (2013). Investigación cuantitativa e investigación cualitativa: buscando las ventajas de las diferentes metodologías de investigación. *Revista de Ciencias Económicas*, 31 (2), 179-187. <https://revistas.ucr.ac.cr/index.php/economicas/article/view/12730/11978>-tik berreskuratua.